

EAE-KO  
2030EKO  
EROSKETA ETA  
KONTRATAZIO  
BERDEAREN  
PROGRAMA

# JARDUERA TXOSTENA 2022KO EKITALDIA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**EAE-KO  
2030EKO  
EROSKETA ETA  
KONTRATAZIO  
BERDEAREN  
PROGRAMA**

# **JARDUERA TXOSTENA 2022KO EKITALDIA**



Txosten honetan Ihobek, Ingurumeneko Euskal Agentziak, EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren idazkaritza tekniko gisa egindako jarduerak eta 2022an euskal sektore publikoak egindako lizitazioetan txertatutako ingurumen klausulen ezarpen maila azaltzen ditu.

---

©Ihobe, 2024ko Otsaila

**Argitaratzailea:**

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua  
48011 Bilbo

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)

[@ihobe\\_Eus](https://twitter.com/ihobe_Eus)

---

# AURKIBIDEA

<b>1. IHOBEREN IDAZKARITZA TEKNIKOAK EAE-N EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAN EGINDAKO JARDUERAK.....</b>	<b>6</b>
<b>2. PROGRAMAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK BETETZEN EGINDAKO AURREPAUSOAK .....</b>	<b>8</b>
<b>3. EAE-KO LIZITAZIOETAKO INGURUMEN KLAUSULEN TXERTATZE MAILA .....</b>	<b>12</b>
<b>4. PROGRAMAREN HEDAPENA: JARDUKETA EREMUAK ETA LERROAK.....</b>	<b>22</b>
<b>5. 5. JARRAIPENA: AGINTE KOADRO OSOA .....</b>	<b>30</b>
<b>6. ERANSKINAK.....</b>	<b>32</b>
<b>I. Eranskina</b> Lizitazioetan ingurumenak duen pisuaren maila, erakunde publikoen motaren arabera.....	32
<b>II. Eranskina</b> Lizitazioetan ingurumenak duen pisuaren maila, erakunde publikoen arabera.....	33
<b>III. Eranskina</b> 2022an egindako jarduketan laburpena.....	48
<b>IV. Eranskina</b> 2020-2025eko ekintza planaren aurrerapena.....	50


# 1.

# IHOBEREN IDAZKARITZA TEKNIKOAK EAE-N EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAN EGINDAKO JARDUERAK

2022an bi ekintza oso garrantzitsu martxan jarri ziren erosketa eta kontratazio berdea finkatzeko eta bide horretan sektore publikoaren partaidetza eta konpromisoa indartzeko:

- Jarraibide bat sortu da autonomia erkidegoaren administrazioak eta bere sektore publikoak egindako kontratazioetan ingurumen klausulak sartzeko.
- Askotariko lantaldeak sortu eta martxan jarri dira sektore publikoaren partaidetza, lankidetzeta eta konpromisoa sustatzeko.

Bi jomuga garrantzitsu horietaz gain, lhobek lanean jarraitu du euskal eragileen artean erosketa berdea sustatzeko laguntza teknikoa ematen, eta horren adierazle dira hurrengo puntuak; horretaz gain, puntu horiek indarrean dagoen erosketa eta kontratazio berdearen programaren helburuak betetzeko aurrera egiten laguntzen dute.



# 2.

## PROGRAMAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK BETETZEN EGINDAKO AURRERAPAUSOAK

EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programan epe ertainean (2025. urterako) eta luzean (2030. urterako) lortzeko zenbait helburu ezartzen dira.

Hauek dira helburu horiek eta 2022an lortutako emaitzak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2022	2025ERAKO HELBURUA	2030ERAKO HELBURUA
Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua	35	75	150
Programari atxikitako erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	0	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (4.6 gutun-azala, ingurumen irizpideekin kontratatzeari buruzkoa)	3,99	4.0	4.2
Programan lehenetsitako kategorietan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, kopuruan (*)	% 50,7	% 55	% 75
Programan lehenetsitako kategorietan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, ekonomia bolumenean (*)	% 66,5	% 55	% 75
Kontratazio osoan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, kopuruan	% 42,9	% 40	% 60
Kontratazio osoan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, ekonomia bolumenean	% 49,3	% 40	% 60


(\*) Hauek dira programan lehenetsitako kategoriak:




Ekitaldi honetan, EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programara atxiki dira 34 erakunde publiko eta pribatu 1. Horrenbestez, bide onean goaz sektore publikoan 2025erako finkatutako helburuak lortzeko, baina beharrezkoa da sektore pribatua mugitzen hastea.

Erosketa publiko berdearen ehunekoari dagokionez, 2022an erosketen ingurumen balio mailak oso handiak izan dira. Adierazle


gehienez 2025erako ezarritako helburuak gainditzen dituzte eta, zalantzarik gabe, euskal administrazioek egindako lanari esker lortu da hori; hala, EAEn erosketa publiko berdea finkatzen ari da.





Erosketa berdearen bilakaera (2021-2022) kopuruan eta ekonomia bolumenean lehenetsitako kategorientzat eta balio orokorrak.

**2022ko erosketa berdearen maila 2025erako helburuetara hurbildu da edo helburuok gainditu ditu. % 42,90 lizitazio kopuruan eta % 49,30 ekonomia bolumenean.** Gainera, lehenetsitako kategoriek ingurumen ehuneko handiagoak dituzte



## 3.

# EAE-KO LIZITAZIOETAKO INGURUMEN KLAUSULEN TXERTATZE MAILA

Aurreko ekitaldietan bezala, lhobek —Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan— euskal erakunde publikoen lizitazioetako erosketa berdearen maila aztertzen du. Analisi hori egiteko, EAEko kontratazio plataformako datuak erabiltzen dira.

Hauek dira datuak:

- Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioak, guztira
- Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioak, programan lehenetsitako produktu taldeen arabera
- Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioak, erakunde adjudikatzailearen motaren arabera
- Lizitazioetan ingurumen klausulak non aplikatzen diren
- Enpresa adjudikaziodunen jatorria

## 3.4 INGURUMEN IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK - INGURUMEN MAILA OROKORRA

EAEko 2022ko kontratazio plataformaren datuen arabera:

**Erosketa berdearen maila** orokorra:

**% 42,9koa** izan da lizitazio kopuruan **% 49,3koa** ekonomia bolumenean

2021ekin alderatuz, **erosketa publiko berdeak nabarmen egin zuen aurrera**, hurrenez hurren, % 31,1 eta % 32,3. Horrekin lotuta, aurten bete ditugu kontratazio orokorrean 2025erako ezarritako helburuak.

	Lizitazioak, GUZTIRA	INGURUMEN IRIZPIDEekin	Erosketa berdearen maila (%)
Lizitazio kopurua	5.314	2.281	42,9
Zenbateko ekonomikoa (EUR)	2.199.612.921	1.084.532.744	49,3



### 3.5 INGURUMEN IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK, PROGRAMAN LEHENETSITAKO PRODUKTU TALDEEN ARABERA


Programan lehenetsitako kategorientzat ingurumen irizpideak dituzten lizitazioen ehunekoa aztertu da lizitazio kopuruaren (kop.) eta zenbateko ekonomikoen arabera (€).

PRODUKTU TALDEA	EROSKETA BERDEAREN % (kopuruan, kop.)	Erosketa berdearen % (zenbatekotan, €)
<b>Elikagaiak</b>	% 54,7	% 47,0
<b>Argiteria publikoa</b>	% 54,0	% 50,2
<b>Eraikuntza eta urbanizazioa</b>	% 48,4	% 59,2
<b>Energia elektrikoa</b>	% 64,7	% 97,6
<b>Inprimatze-ekipoak</b>	% 43,3	% 57,9
<b>Informatika ekipoak</b>	% 30,9	% 16,7
<b>Lorezaintza/berdeguneak</b>	% 57,1	% 61,8
<b>Altzariak</b>	% 55,9	% 58,1
<b>Obra zibila eta azpiegiturak</b>	% 51,4	% 65,5
<b>Ehunak</b>	% 65,0	% 33,0
<b>Ibilgailu arinak</b>	% 63,5	% 71,0
<b>Ibilgailu astunak</b>	% 60,8	% 85,0
<b>Guztira</b>	<b>% 50,7</b>	<b>% 66,5</b>

2022an, lehenetsitako kategoriak dituzten ia lizitazio guztiak 2025erako ezarritako % 55eko helburura iritsi dira edo helburu hori gainditu dute.

Ingurumen irizpideak sartzeagatik nabarmentze-koak diren kategoriak dira **energia elektrikoa eta ibilgailuak**, zalantzarik gabe Energia Jasangarritasunaren Legeak bultzatuta.

2021ekin alderatuta, nabarmenki hobetu dira **elikagaiak, eraikuntza eta urbanizazioa eta altzariak** kategoriak, eta ondoren lorezaintza eta ibilgailuak daude, bereziki zenbatekoan handitu direnak.



Erosketa berdearen egoera kopuruan eta ekonomia zenbatekoan, 2022an lehenetsitako kategorietan.


2022an, programan **lehenetsitako produktuen kategorietan** ingurumen klausulak dituzten lizitazioak **% 50,7koak izan dira kopuruan** eta **% 66,55ekoak ekonomia bolumenean**

PRODUKTU TALDEA	Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioak, kopuruan (kop.)	Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioen zenbatekoak (€)
<b>Elikagaiak</b>	29	1.717.654,80 €
<b>Argiteria publikoa</b>	27	3.726.638,79 €
<b>Eraikuntza eta urbanizazioa</b>	357	244.677.593,28 €
<b>Energia elektrikoa</b>	11	142.840.389,20 €
<b>Inprimatze-ekipoak</b>	13	842.201,32 €
<b>Informatika ekipoak</b>	17	3.824.104,21 €
<b>Lorezaintza/berdeguneak</b>	20	4.740.396,02 €
<b>Altzariak</b>	33	2.672.723,94 €
<b>Obra zibila eta azpiegiturak</b>	168	189.737.522,26 €
<b>Ehunak</b>	13	427.210,10 €
<b>Ibilgailu arinak</b>	40	6.410.600,18 €
<b>Ibilgailu astunak</b>	31	11.096.272,42 €
<b>Guztira</b>	<b>759</b>	<b>612.713.306,52 €</b>


ITURRIA: EAEko kontratazio plataformaren “kontratatzailearen profiletik” ateratako datuak.  
2022-01-01etik 2022-12-31ra.

Azpimarratzekoa da lehenetsitakoen artean zenbateko handienak dituzten kategorietan lortutako erosketa berdearen maila: **eraikuntza eta urbanizazioa, obra zibila eta azpiegiturak eta energia elektrikoa**, hurrenez hurren, ingurumen klausulekin lizitatutako zenbatekoaren % 59,2, % 65,5 edo % 97,6.

### Lizitazioak kopuruan



### Lizitazioak bolumen ekonomikoan



2022an lehenetsitako kategorien lizitazioen banaketa, kopuruaren eta zenbatekoaren arabera

### 3.6 INGURUMEN IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK, ERAKUNDE ADJUDIKATZAILEAREN MOTAREN ARABERA

Foru aldundiek eta tokiko administrazioek erosketa berdearen maila oso onak dituzte beraien lizitazioetan.


Atzetik dago Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa kontratazio osoaren % 33,6rekin, baina % 30era iristen ez diren ingurumen irizpideen ehunekoekin.

Orokorrean, administrazio guztiek hobetu dute beren ingurumen arloko lana 2021ekin alderatuta, euskal sektore publikoak eta eskualdetako bestelako erakunde batzuek salbu.

ERAKUNDE MOTA	EROSKETA BERDEAREN % (kopuruan, kop.)	Erosketa berdearen % (zenbatekotan, €)
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	% 32,7	% 55,4
<b>Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa</b>	% 29,3	% 28,3
<b>Beste bat- eskualde eremua</b>	% 43,4	% 37,0
<b>Foru Aldundia</b>	% 57,1	% 72,8
<b>Batzar Nagusiak (Aldundiarena)</b>	% 28,6	% 4,4
<b>Foru sektore publikoa</b>	% 44,7	% 38,6
<b>Beste bat - probintzia eremua</b>	% 65,2	% 90,7
<b>Kuadrilla</b>	% 64,3	% 68,0
<b>Mankomunitatea</b>	% 64,4	% 93,6
<b>Udala</b>	% 49,2	% 55,9
<b>Administrazio Batzarra</b>	% 100,0	% 100,0
<b>Tokiko sektore publikoa</b>	% 47,3	% 75,0
<b>Beste bat - tokiko eremua</b>	% 32,8	% 60,2
<b>Guztira</b>	<b>% 42,9</b>	<b>% 49,3</b>


ITURRIA: EAEko kontratazio plataformaren "kontratatzailearen profiletik" ateratako datuak.  
2022-01-01etik 2022-12-31ra.

Guztira, 2022an EAeren plataforman lizitazioak argitaratu dituzten 354 erakundeetatik, neurri handiagoan edo txikiagoan, 235ek ingurumen klausularen bat sartu zuten, hau da, % 66k.




2022ko erosketa berdearen egoera kopuruan eta ekonomia zenbatekoan, erakunde adjudikatzailearen motaren arabera.

**Lizitazio kopuru osoaren %**




- Eusko Jaurlaritza
- Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa
- Beste bat- eskualde eremua
- Foru Aldundia
- Batzar Nagusiak (Aldundiarena)
- Foru sektore publikoa
- Beste bat - probintzia eremua
- Kuadrilla
- Mankomunitatea
- Udala
- Administrazio Batzarra
- Tokiko sektore publikoa
- Kontzertazio bilera
- Beste bat - tokiko eremua

**Lizitazio guztien zenbatekoaren %**



- Eusko Jaurlaritza
- Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa
- Beste bat- eskualde eremua
- Foru Aldundia
- Batzar Nagusiak (Aldundiarena)
- Foru sektore publikoa
- Beste bat - probintzia eremua
- Kuadrilla
- Mankomunitatea
- Udala
- Administrazio Batzarra
- Tokiko sektore publikoa
- Kontzertazio bilera
- Beste bat - tokiko eremua

2022an administrazio publikoek egindako lizitazioen banaketa, kopuruaren eta zenbatekoaren arabera.



### 3.7 LIZITAZIOETAN INGURUMEN KLAUSULAK NON APLIKATZEN DIREN

Ingurumen klausulak lizitazioetan hainbat lekutan jarri daitezke: egikaritzeko baldintza bereziak, adjudikazio irizpideak, kaudimen irizpideak edo bestelakoak izan daitezke.

Lizitazioetan sartu diren ingurumen klausula guztietatik — horietako zenbait lizitazio berebean—, gehienak egikaritze baldintza berezi gisa aplikatu dira. Aurrekoa logikoa da, kontuan hartuta egun indarrean dagoen Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak nahitaezkozat jotzen duela kontratu guztiek gutxienez ingurumen, gizarte edo etika motako egikaritze baldintza bereziren bat izatea.

**2022ko kontratuetako ingurumen klausulen % 70,3 egikaritze baldintza bereziak dira, eta adjudikazio irizpideak ingurumen klausulen % 18,2 dira**

#### PLEGUAN APLIKATZEKO LEKUA

#### Ehunekoa

Egikaritze baldintza bereziak	% 70,3
Adjudikazio irizpideak	% 18,2
Gaitasun teknikoaren irizpideak	% 6,0
Beste batzuk	% 5,3

### 3.8 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN JATORRIA


Lizitazio guztiak aintzat hartuta, nagusi dira EAeko enpresa adjudikaziodunak. Euskal enpresen nagusitasun hori are handiagoa da ingurumen klausulak dituzten lizitazioetan.

**Euskal enpresak** ongi prestatuta daude ingurumen irizpideak dituzten lizitazioei aurre egiteko, **ingurumena aintzat hartzen duten lizitazioen % 73,5en** adjudikaziodunak baitira (lizitazio horiek ekonomia bolumenaren % 77,7 dira zehazki)

	Ingurumen irizpideak dituzten lizitazioak, guztira		Lizitazioak, guztira	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Euskal enpresen ehunekoak	% 73,5	% 77,7	% 68,7	% 66,8

## 4.

# PROGRAMAREN HEDAPENA: JARDUKETA EREMUAK ETA LERROAK



- Hauek dira “EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio berdearen Programaren” esparruan egindako ekintzak, eta deskribapen horri esker, 2025erako ekintza planaren aurrerapena ikus daiteke.
- Ekintza horiek 5 eremutan eta 10 jarduketa lerrotan daude, eta horietan hedatzen da programa:

<b>1. eremua:</b> <b>EAEko politikak hedatzeko ezinbesteko tresna gisa finkatzea erosketa eta kontratazio berdea</b>	1.L: Erosketa publiko berdearen ezinbesteko eginkizuna indartzea
	2.L: EAEko garapen lehentasunekin lerrokatuta daudela ziurtatzea
<b>2. eremua:</b> <b>EAEko sektore publikoa eta enpresa sektorea mugiaraztea eta erosketa eta kontratazio berdearekin konprometitzea lortzea</b>	3.L: EAEko sektore publiko guztiak parte hartzea lortzea
	4.L: EAEko enpresak sentsibilizatzea eta atxikitzea bultzatzea
<b>3. eremua:</b> <b>Erosketa eta kontratazio berdea erakundeen egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea</b>	5.L: Ezarpen sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea
	6.L: Eraginpeko langile guztiengan erosketaren eta kontratazioaren eginkizuna profesionalizatzea
<b>4. eremua:</b> <b>Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea erosketa eta kontratazio berdeari dagokienez</b>	7.L: Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea
	8.L: Enpresa hornitzaileak prestatzea
<b>5. eremua:</b> <b>Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ezagutaraztea</b>	9.L: Ezarpena neurtzea eta onurak kalkulatzeko
	10.L: EAEko aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea

## 1. eremua

# EAEko politikak hedatzeko ezinbesteko tresna gisa finkatzea erosketa eta kontratazio berdea

### LÍNEA DE ACTUACIÓN 1:


## REFORZAR EL PAPEL DE LA COMPRA VERDE COMO HERRAMIENTA OPERATIVA EN EL MARCO POLÍTICO Y JURÍDICO DE TODO EL SECTOR PÚBLICO VASCO

### 1. JARDUKETA LERROA

EAE-ko sektore osoaren esparru politiko eta juridikoan erosketa berdeak tresna operatibo gisa duen eginkizuna indartzea.

- **1. EKINTZA: Jarraibidea sortzea**

2022an 2023an argitaratuko den jarraibide bat idatzi zen. Bertan ezarri ziren administrazio orokorrak, erakunde administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren gainerako erakundeek prozedura irekiaren eta prozedura ireki sinplifikatuaren bidezko lizitazioetan ezarri beharko dituzten oinarritzko ingurumen irizpideak. Jarraibidea egungo eta aurreko erosketa programan lehenetsitako kategorien obra, hornidura eta zerbitzu kontratuetan aplikatuko da.



## 2. JARDUKETA LERROA:

### **ZIURTATZEA EROSKETA BERDEA LERROKATUTA DAGOELA EAE-KO INGURUMEN ETA EKONOMIA LEHENTASUNEKIN**

## 3. JARDUKETA

**Erosketa berdearen irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, hala, EAEko lehentasunekin lerrokatu daitezten.**

- **1. EKINTZA: Produktu eta zerbitzuen 19 kategorietako sinplifikatutako oinarrizko irizpideak berrikusi eta eguneratzea**

“Autonomia erkidegoaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan ingurumen klausulak txertatzeko jarraibidean” sartutako produktu kategorien oinarrizko mailan berrikusi eta eguneratu dira irizpide sinplifikatu guztiak. Hauek dira kategoriak: catering zerbitzua, jantoki zerbitzua, vending-a, energia elektrikoa, inprimaketa ekipoak, informatika ekipoak, ekitaldiak, lorezaintza/berdeguneak, eraikinen garbiketa, mezularitza, altzariak, papera, bulegoko materiala, argitalpenak eta inprimaketa, laneko arropa eta oinetakoak, barneko ehunak, autobusen erosketa/zerbitzua, ibilgailuen erosketa/alokairua eta bidaiak.

- **2. EKINTZA: Oinarrizko irizpide sinplifikatuaren garapen berria argiteria publikoarentzat eta ibilgailu astunentzat.**

Oinarrizko irizpide sinplifikatuak idatzi dira bi produktu kategoria berrirentzat, modu horretan, “Autonomia erkidegoaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan ingurumen klausulak txertatzeko jarraibidean” sar daitezten: Argiteria publikoa eta ibilgailu astunak.

- **3. EKINTZA: Obra hidraulikoetarako erosketa berdearen irizpideak argitaratzea.**

Erosketa berdearen irizpideak argitaratu dira obra hidraulikoen proiektuak idatzi eta egikaritzeko. Irizpideak hiru eskakizun mailatan hedatu dira, eta klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak barne hartzen dituzte.

- **4. EKINTZA: Irizpide sinplifikatuak idaztea obrekin lotutako 8 kategoriarentzat.**

Obrekin lotutako kategorია hauentzat garrantzitsuenak diren erosketa irizpideak eguneratu eta aukeratu dira: Eraikuntza proiektua eta obra, urbanizazio proiektua eta obra, obra zibileko proiektua eta obra eta hidraulikako proiektua eta obra. Hori dela eta, “Autonomia erkidegoaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan ingurumen klausulak txertatzeko jarraibidean” sartu da.

## 2. eremua

### EAEko sektore publikoak eta pribatuak erosketa eta kontratazio berdearekin duten konpromisoan aurrera egitea

#### 3. JARDUKETA LERROA:

#### EAE-KO SEKTORE PUBLIKO GUZTIAK PARTE HARTZEA LORTZEA

#### 5. JARDUKETA

**Lantaldeak sortzea administrazioen profilararen arabera, lizitazioetan ingurumen irizpideak azkarrago txertatu daitezzen. Horretarako, erabiliko den sare nagusia Udalsarea2030 izango da.**

- **1. EKINTZA: Eusko Jaurlaritzaren lantaldea martxan jartzea.**

2022ko uztailaren 18an lehenengo bilera egin zen lantalde horrekin eta bertan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzako 10 sailtako 13 kidek. Bilera horretan erosketa berdearen programa berria aurkezteaz gain, taldearen lan esparrua ezarri zuten.

Azaroaren 8an taldearen lehenengo bilera operatiboa egin zen. Bertan aurkeztu zituzten sailek erosketa berdearen arloan eskuragarri dituzten zerbitzuak eta aurrera egiteko beharrak eta hurrengo pausoak identifikatu zituzten.

- **2. EKINTZA: Atxikitako erakundeen lantaldea martxan jartzea.**

2022ko azaroaren 10ean atxikitako erakundeen taldeak lehen bilera egin zuen eta 20 erakundetako 23 kidek parte hartu zuten bertan. Bilera horretan, erakundeei erosketa eta kontratazio berdearen programa berria eta lantaldearen helburuak azaldu zitzaizkien, eta atxikitzeko eskuragarri dituzten zerbitzuak zeintzuk diren esan zitzaaien. Horretaz gain, beharrak eta interesak identifikatu ziren eta nola lan egingo duten erabaki zuten.

#### 6. JARDUKETA

**Lantalde bat sortzea ziurtatzeko bigarren mailako materiala sartzan dutela obretan, EAEko 2030eko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Planean definitutako erabilerak eta kalitate mailak betez.**

- **1. EKINTZA: Lantaldea martxan jartzea**

2022ko azaroaren 10ean taldeak lehen bilera egin zuen, eta obren eta eraikuntzaren arloan erosketa eta kontratazio publiko berdearen lehen taldea martxan jarri zen. Programari atxikitako 10 erakundek parte hartu zuten bileran. Talde horren helburua da laguntzea ziurtatzen obretan bigarren mailako materiala sartzan dela eta, horrez gain, talde eragile gisa lan egitea eta gainerako administrazio publikoetan aplikatu daitezkeen eraikuntza arloko erosketa berdearen alderdiak finkatzea.

### 3. eremua

## Erosketa eta kontratazio berdea erakundeen egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea

#### 5. JARDUKETA LERROA:

### EZARPEN SISTEMATIKO ETA ESTRATEGIKORAKO BALIABIDEAK EMATEA

#### 8. JARDUKETA

Lizitazioetan ingurumena aintzat hartzeko laguntza pertsonalizatua edo aholkularitza zerbitzua indartzea.

- **1. EKINTZA: Laguntza pertsonalizatua ematea ingurumen klausulak sartzeko.**

2022an 27 administrazio publikori eman zaie laguntza pertsonalizatua 74 alditan; nagusiki, toki erakundeei eta Eusko Jaurlaritzari.


Laguntza horri esker, produktu eta zerbitzuetako hainbat kategoriatako 36 lizitazioetan ingurumenaren arloa txertatu da, eta erosketa publiko berdearekin lotutako 38 kontsulta ebatzi dira.

#### 9. JARDUKETA

Erosketa eta kontratazio berderako tresnak eta/edo baliabide teknikoak sortzea eta/edo egokitzea.

- **1. EKINTZA: Hondakinen kudeaketa azterlana eta Hondakinen kudeaketa plana egiteko neurri aurreratuen laburpena.**

Obra eta proiektuen lizitazioetan hondakinen kudeaketa bikaina txertatzeko, lhobek Hondakinen kudeaketa azterlana eta Hondakinen kudeaketa plana idazteko argitaratu zituen eskuliburuetatik hartu dira Legearen betekizunetatik haratago doazen neurri aurreratuenak. Eranskin berri horiekin, helburua da neurri horiek identifikatzea, pleguetan argiago eskatu edo baloratu ahal izan daitezen.



## 6. JARDUKETA LERROA:

### ERAGINPEKO LANGILE GUZTIENGAN EROSKETAREN ETA KONTRATAZIOAREN EGINKIZUNA PROFESIONALIZATZEA

#### 11. JARDUKETA

**EAEko sektore publikoari erosketa publiko berdearen arloan trebakuntza lerro egonkorra ezartzea, besteak beste, IVAPen bitartez.**

- **1. EKINTZA: Lantsaio teknikoak: Erosketa publiko berdea: ENERGIA JASANGARRITASUNAREN 4/2019 LEGEAK ETA INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN 10/2021 LEGEAK ezarritako betebeharrak.**

Joan zen uztailaren 6an lantsaio tekniko bat egin zen eta 61 pertsonen parte hartu zuten bertan. Helburua izan zen orain dela gutxi argitaratutako bi lege horiek erosketa publikoan ezartzen dituzten betebeharrak argitzea eta, horretarako adibide praktikoak eman ziren, euskal administrazio publikoek ezar ditzaten.



---

## 5. eremua

### **Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ezagutaraztea**

#### 9. JARDUKETA LERROA:

#### **EZARPENA NEURTZEA ETA ONURAK KALKULATZEA**

#### 17. JARDUKETA

**Onurak eta emaitzak neurtzeko sistema bat sortzea, erosketa publiko berdearen abantailak identifikatzeko.**

- **1. EKINTZA: Onurak neurtzeko tresna.**

Ihobe tresna bat garatzen ari da erosketa publikoa aplikatzearen onurak neurtzeko.



## 10. JARDUKETA LERROA:

### EAE-K LURRALDEAREN BARNEAN, EUROPAN ETA NAZIOARTEAN EGINDAKO AURRERAPENAK JAKINARAZI ETA SUSTATZEA

## 19. JARDUKETA

**EAEko sektore publikoan erosketa berdearen praktika onak eta pleguen adibideak zabaltzea, beste batzuen artean, sei hilean behingo berrien aldizkariekin eta gaiaren inguruko berritasunekin.**


- **1. EKINTZA: Joeren txostena:**

2022an erosketa eta kontratazio publiko berdearen joeren 4 txosten idatzi ziren, 1 hiruhileko bakoitzean. Txosten horietan, gure lurraldearen barneko eta kanpoko gaurkotasunari buruzko informazioa eta EAEko tresnak eta praktika onak jasotzen ziren.

Txostenak Ihoberen webguneko “Erosketa publiko berdea” atalean daude eskuragarri.



Joerei buruzko  
txostena  
Erosketa eta  
Kontratazio Publiko  
Berdea  
2023ko apirila



## 20. JARDUKETA

**Lortzea EAEk partaidetza handiagoa izatea Nazio Batuen “Programme on Sustainable Public Procurement” eta Iclei-ren “Procura+” programetan.**

- **1. EKINTZA: ICLEIren webgunean eguneratzea programa berriaren informazioa**


Ihobek EAEn erosketa berdean egindako aurrerapenak ICLEIren webgunearen bitartez jakinarazten ditu. Bertan, xehetasunez azalduta daude EAEko erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa berriaren estrategia eta ekintza plana.

## 5.

# 5. JARRAIPENA: AGINTE KOADRO OSOA

Hauxe da EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio berdearen Programaren helburuen eta betetze maila neurtzeko adierazleen aurrerapena.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2022	2025ERAKO HELBURUA	2030ERAKO HELBURUA
Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua	<b>35</b>	75	150
Programari atxikitako erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	<b>0</b>	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (4.6 gutun-azala, ingurumen irizpideekin kontratatzeari buruzkoa)	<b>3,99</b>	4.0	4.2
Programan lehenetsitako kategorietan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, kopuruan (*)	<b>% 50,7</b>	% 55	% 75
Programan lehenetsitako kategorietan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, ekonomia bolumenean (*)	<b>% 66,5</b>	% 55	% 75
Kontratazio osoan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, kopuruan	<b>% 42,9</b>	% 40	% 60
Kontratazio osoan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa, ekonomia bolumenean	<b>% 49,3</b>	% 40	% 60



EZARPEN ADIERAZLEAK	2021	2025ERA KO HELBURUA
Ekintza planetako ekintzen betearazpen maila	% 24	% 100
Mobilizazio/dinamizazio ekintzen kopurua	3	3 URTEAN
Prestakuntza ekintzen/baliabideen kopurua	4	4 URTEAN
Ezagutarazpen ekintzen kopurua	4	4 URTEAN

Ondorengo 2020-2025 urteetako ekintza planaren betearazpenaren aurrerapen maila IV. eranskinean xehatuta dago.

Ezarpn adierazleak sortzeko, 2022an egindako ekintza kopurua gehitzen da, III. eranskinean xehatuta dagoen bezala.

KUDEAKETA ADIERAZLEAK	2022	2025ERA KO HELBURUA
Ekintza planen jarraipen txostenak egitea	OK	Urtean behin
Eraitzen eta aurrerapenen laburpenak argitaratzea	OK	Urtean behin
Ekintza planen ebaluazio txostenak egitea	<b>Ez da aplikatu behar</b>	2025


# 6.

## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: LIZITAZIOETAN INGURUMENAK DUEN PISUAREN MAILA, ERAKUNDE PUBLIKOEN MOTAREN ARABERA

ERAKUNDE MOTA	Erosketa BERDEAREN % (kopuruan)	Erosketa BERDEAREN % (zenbatekoan)
Eusko Jaurlaritza eta bere sektore publikoa	% 30,4	% 38,9
Foru erakundeak eta bere sektore publikoa	% 50,9	% 57,0
Toki erakundeak eta bere sektore publikoa	% 49,6	% 60,5
Beste batzuk	% 49,6	% 75,8
<b>Guztira</b>	<b>% 42,9</b>	<b>% 49,3</b>

ITURRIA: EAEko kontratazio plataformaren "kontratatzailearen profiletik" ateratako datuak.  
2022-01-01etik 2022-12-31ra.



## II. ERANSKINA: LIZITAZIOETAN INGURUMENAK DUEN PISUAREN MAILA, ERAKUNDE PUBLIKOEN ARABERA

ADJUDIKAZIODUN AHALORDEA	Erosketa BERDEAREN % (kopuruan)	Erosketa BERDEAREN % (zenbatekoan)
AGASA	% 35,7	% 24,6
Agencia de Desarrollo del Bidasoa SA	% 0,0	% 0,0
Agencia para la Renovación Urbana de la Bahía de Pasaia, Badia Berri SA	% 100,0	% 100,0
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	% 100,0	% 100,0
Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SA	% 71,4	% 59,6
Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz SAU	% 68,4	% 92,0
Alava Agencia de Desarrollo SA	% 0,0	% 0,0
ALOKABIDE - Sociedad de Alquiler SA	% 70,6	% 94,7
ARABAT Vías de Álava SA	% 0,0	% 0,0
ARARTEKO EUSKADIKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA	% 87,5	% 90,8
Arratiako Egoitza	% 0,0	% 0,0
Arratiako Udalen Mankomunitatea	% 0,0	% 0,0
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biociencias-CIC bioGUNE	% 100,0	% 100,0
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biomateriales-CIC biomaGUNE	% 75,0	% 74,8
Asociación de Investigación MPC-Materials Physics Center	% 83,3	% 98,3

<b>ADJUDIKAZIODUN AHALORDEA</b>	<b>Erosketa BERDEAREN % (kopuruan)</b>	<b>Erosketa BERDEAREN % (zenbatekoan)</b>
Asociación Instituto Biodonostia	% 88,9	% 88,1
Asociación Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces Bizkaia	% 12,5	% 1,3
Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano	% 40,0	% 51,5
AUKERAK - Gizarteratzearen Euskal Agentzia	% 27,3	% 9,4
Getxoko Kultur Etxea	% 100,0	% 100,0
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza	% 75,0	% 80,7
Lehiaren Euskal Agintaritza	% 33,3	% 28,7
Abanto-Zierbenako Udala	% 58,3	% 60,2
Adunako Udala	% 0,0	% 0,0
Aguraingo Udala	% 100,0	% 100,0
Ajangizko Udala	% 0,0	-
Dulantziko Udala	% 0,0	% 0,0
Amezketako Udala	% 0,0	% 0,0
Amorebieta-Etxanoko Udala	% 90,0	% 98,1
Amurrioko Udala	% 75,0	% 79,5
